

noaua

**Elhuyar bisitatzen izan zen
Urkullu lehendakaria**

Gure Pakearen batzar nagusia

Otsailaren 6an, bertso-afaria



**Gattunk denda,
elkartasunaren eta auzolanaren ikur**

LASER DIODO IRAUNKORRA LIGHTSHEER® DIODO LASERRAREKIN

KIROLARIA BAZERA... depilazio iraunkorra
lortzeko aukera paregabea eskaintzen dizugu:

EMAKUMEETAN:

- Hanka osoak 153€ sesioa
- Hanka erdiak 102€ sesioa
- Besoak 99€ sesioa
- Besurreak 99€ sesioa
- Ingleak (bikini) + besapeak 92€ sesioa
- Ingleak (Pubisa edo Brasildarra) + besapeak 102€ sesioa
- Kokotsa + ezpaina 40€ sesioa

GIZONETAN:

- Sorbaldak 99€ sesioa
- Sabelaldea + toraxa 153€ sesioa
- Hanka osoak 194€ sesioa
- Hanka erdiak 122€ sesioa
- Besoak 143€ sesioa
- Besurreak 122€ sesioa

Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu

INTZA
ILEA PAINDEGA
ESTETIKA ZENTROA

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik

12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpiⁿ

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia

E.: contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albiste iruditan

Igande honetan, masail pintxo festa

Igandean, otsailaren lehenean ospatuko den Hurbilago Elkarteak antolatutako Tipi-Tapan, masailak edo "karrillerak" dastatzeko aukera izango dugu. Ohi bezala, edariarekin batera bi euroren truke, Aitzaga, Artzabal, Bordatxo, Txapeldun, Txiriboga, Txirristra eta Xarma tabernetan. Ez ahaztu pintxoak dastatzen joan ahala, Tipi-Tapa txarteleko zigiluak biltzeaz. Zazpi zigiluak bildu ostean, sartu txartela tabernetan egongo diren kaxetan. Bi sariren zozketan parte hartzeko aukera izango duzue hartara. 15:00etan Txapeldun tabernan, Hurbilago Elkarteako establezimenduetan xahutzeko 150 euroko erosketa txartela eta bi laguntzako afaria zozketatuko dute.

Azkena, Xarmarentzat

Otsailaren leko pintxo festa, azkena izango da Xarmakoentzat. Borda Berri kalean kokatua dagoen tabernak atek



Igandeko honetako zozketak Txapeldun tabernan egingo dira, 15:00etan. Hori bai, aurretik, Aitzaga, Artzabal, Bordatxo, Txapeldun, Txiriboga, Txirristra eta Xarma tabernetako zigiluak batu beharko dira.

itxiko ditu Tipi-Tapa eguna amaitzean. Zortzi urtez zabalik izan den negozioa itxiko dute hilaren 1ean. Martxotik au-

rrera beraz, zazpitik seira murriztuko da, Tipi-Tapa egitasmoan parte hartuko duen taberna kopurua.

Laburrean

San Silvestre lasterketako argazkiak sarean

Ivan Perez argazkilaria web orrian daude: ivanperez.es helbidean. "Bezeroen sarbidea" delako atalean sartu pasahitz hau, idatzia dagoen moduan: sansilvestre2014. Argazkiak ere saltokian bertan inprimatzeko aukera dago, Hurbilagotik NOAUAri jakinarazi diotenez.

Zabalik jarraitzen du matrikulazioak euskaltegian

Ikasturtea martxan egon arren, zabalik jarraitzen du Etumeta-AEK euskaltegian matrikulatzeko epeak. O urratsetik EGA mailara arteko eskaintza dago aukeran. Euskara ikasi edo hobetu nahi duenak beraz, gerturatu dadila euskaltegira.

1956koen kinto afarian izena emateko epea zabalik

Otsailaren 28an larunbatarekin batuko dira 1956an jaiotakoak Antxeta jatetxean. Izen emateko epea zabalik izango da otsailaren 21era arte. Apuntatzeko telefono zenbaki honetara deitu behar da: 648 755 316 (Guillermo).

noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 /// elkarte@noaua.com /// www.noaua.com

Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.com

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzio@noaua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Ettxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Arna-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu


Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal Herra!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ubeda

Dantzariak, eta zuzendariaz

Urtarrilaren 23an irakurritako hauxe da nire gaurko hausnarketa-ren abiapuntua. "Sakratua da danborrada donostiar askorentzat, ikusi ditugu haurrak desfilatzen, helduak Konstituzio plazan gogoz danborrak jotzen, banatu dira Urrezko Danborra eta gainontzeko ohoreak eta donostiarrek hurrengo urterako gorde dituzte jantzi dotoreak. Whatsapp bidez danborrada-ren beste pasarte bat dabil,

ordea, bolo-bolo: turista bat dirudi, Donostiako Parte Zaharrean danborradari beste dantza erritmo bat jarritz... Zuzendariari ez dio grazia handirik egin, ordea, gaztearen dantzak. Broma gutxi danborradarekin".

Zehazki, Naiz agerkari digitalean zetorren. Dagoeneko, lerro hauek irakurri orduko, jakingo duzue gutxi asko zein zen turista plantako dantzaria. Sky Sports telebistarako lan egiten duen britainiar komikoa.

Askorentzat oharkabean pa-

sako zen. Baina hona ekarritudan lerroetatik, zer pentsatua eman zidan bereziki lehen hitz horrek, sakratuarenak. Ez hitzak bakarrik noski. 'Sakratua' hitzak ez ezik, baita ondorengo azalpenak ere. "Broma gutxi danborradarekin" borobildua. Kezkagarri, zernahi joera justifikatzeko aringarri gisa baliatu izan delako aurretik sakratuarena. Oso adibide argiak ditugu, eta ez oso urrun. Irun edota Hondarribiko alardeak, hain juxtu.

lerarkia bat ezartzera datozen argudioak baitira horiek: "sakratua da danborrada", "broma gutxi danborradarekin"... Bertakoak ez garenok, ezin omen dugu jaia behar den bezala ulertu, beraz, gure argudioak hutsaren hurrengo dira.

Eta egunotan, hori interpretatu dut sare sozialetan piztu diren eztabaida batzuetan. Zuzendariaren jarrera oldarkorra sakralizatzen zutenen alde-tik, hain zuzen.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Maiale Unanue | Luis Aranalde | Idoia Torregarai | Joxe Piñas

EAJ-PNVk eta EH Bilduk agerraldi bateratua egingo dute Sutegin, Marisa Alejandrori egingo zaion epaiketa salatzeke

Urtarrilaren 29tik aurrera epaituko dituzte Ezker Abertzaleko 35 kide. Azken orduko ezustekorik ez bada behintzat. Espainiako Auzitegi Nazionalean egingo da epaiketa eta auziperatuen artean da Marisa Alejandro usurbildarra. Fiskaltzak 10 urteko espetxe zigorra eskatzen du guztientzat.

Otsailaren 6ko agerraldian, EAJ eta EH Bildu alderdiek hartuko dute parte. Ez da elkartasun ekitaldi bakarra izan. Duela egun batzuk, herritar ugari batu zen Mikel Laboa plazan. Epaiketa politikoen behin betiko amaiera, auziperatu guztiak libre uztea, eta espetxeratze gehiagorik ez gertatzea eskatuz.



Duela egun batzuk, herritar askoren babesa jaso zuen Marisa Alejandrorki.



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

txirriStra

TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Ostiral honetan, gure Pakea Elkartekoen batzar nagusia

Urtarrilaren 30ean, 16:30ean, Artzabalen duten areto nagusian. Honatx jorratuko duten gai zerrenda:

- 1. Lehendakariaren agurra.
- 2. Aurreko biltzar nagusiaren akta irakurtzea eta onartzea, hala badagokio.
- 3. 2014ko memoria irakurtzea eta onartzea, hala badagokio.
- 4. Honako hauek irakurtzea eta onartzea, hala badagokio:
A 2014-12-31ko diru sarreren eta gastuen balantzea.
B 2014-12-31n itxitako diru egoeraren balantzea.
- 5. 2015ean batzordea berritzea egokitzten dela gogorarazi.
- 6. 2015. urtean egin daitezkeen aktibitate berrien proposamenak.
- 7. Galde-erantzunak.

Bazkideen arteko txapelketak

Urteko batzarra egin ostean, bazkideen arteko txapelketetan lehiatzeko aukera izango dute Gure Pakea Elkarteko bazkideek. Ekimenotan parte hartu nahi dutenek, otsailaren 6ra arteko epea dute izen emateko.



Batzar Nagusia Artzabalen egingo da arratsaldeko 16:30ean.

Hemen duzue, 2015eko mahai joko eta mugimenduko txapelketen egutegia:

- Otsailaren 9an, astelehena: punttuan.
 - Otsailaren 10ean, asteartea: tutean.
 - Otsailaren 11n, asteazkena: musean.
 - Otsailaren 12an, osteguna: Igel eta Toka jokoak. Sari banaketa eta askaria parte hartzaile guztiekin.
- Txapelketa guztiak arratsaldeko 16:00etan hasiko dira.

Antolatzailea: Gure Pakea Elkartea.

Hurbilagoren zozketako azken saritua agertu da

Abenduaren 31n, San Silvestre herri lasterketa amaieran ospatu zen Hurbilagoren Gabonetako Zozketako bizikletaren jabea agertu zen galdezka zebilen jendea. 134.294 izan zen zerbaki saritua, baina zerbakiak zuen herritarra ez zen ageri. Aurreko asteazkenera arte. Maribel Kastresana izan da saritua eta argazkian ageri da, zerbaki sarituarekin, bizikletarekin eta bilobarekin.

Coluer Sphera bizikleta

Argazkian duzue Kastresana, Esnaola lurindegiko Mari Karmen Esnaolarekin. Maribelek abenduan zehar aipatu saltokian eginiko erosketengatik irabazi du Coluer Sphera 260 Disc HD markako bizikleta ederra. Zorionak!



Maribel Kastresanari tokatu zaio bizikleta.

Bihurri ludotekako bazkideen ordainketa

Ordainketarako epea zabaldu dute, martxoaren 31ra arte. Bazkide berriek 30 euro eta jada bazkide direnek 10 euroko ordainketa egin beharko dute kontu zenbaki honetan:

Kutxabank 2095 5069 06 1063903578.
Edozein zalantza argitu edo proposamenak egiteko, ludotekako tabloia edo honako helbide hau dute Bihurri ludotekako kideek: bihurri ludoteka@gmail.com

Santa Ageda bezpera, Udarregi ikastolan

Otsailaren 4an berriz ere usadio zaharrak berriztera irtengo dira Udarregi Ikastolako ikasle eta irakasleak. Santa Ageda bezperan, baserriar jantziekin eta makilak eskutan abesten ikusiko ditugu herri erdigunean berrera, HH, LH eta DBHkoak. Bakoitzak bere ibilbidea osatuko du, 14:45-16:30 artean. HH eta LHkoek, arratsaldeko 16:00ak aldera frontoian amaituko dute kalejira.



HH, LH eta DBHko ikasleak kantari aterako dira.

Santa Ageda bezperako eskea prestatzeko entsegua antolatu dute Zubietan

Otsailaren 4ko ekitaldiak prestatzeko lanak martxan dituzte Zubietan. Ostiral honetarako entsegu saioa deitu dute, iluntzeko 19:00etan Kaxkapen. Bertatik, Kaxkapetik abiatuko da, Santa Ageda bezperako eskea otsailaren 4an, 18:30etan. Zubietan Lantzen taldekoek antolatu dituzte deialdiok eta baita, eskea amaitu osterako afaria ere. Zubietako Elkartean ospatuko dute otordua.





SANTUENEA

PAKO AGUDO

Kilometroetarako laguntza

Urte berri on! Oraindik esan dezaket ezta? Sartu berri den urte honetako neure lehen kronika da, beraz esan dezakedala uste dut. Aurten bai! Erretzeari utzi... Aurten bai! Kirola egiten hasi... Aurten bai! Bizitzaz hausnartu eta bide berriak aukeratu... Aurten bai! Ingurukoekin behar duten eta dudan arreta jarri... Aurten bai! Bizitzari... bizia eman. Bakoitzak jakingo du zer eskatu dion 2015. urte honi. Ziur nago halere, aurten herria aztoratuko duen Kilometroak jaialdi handiak, gertutik edo gertuagotik, denoi ukituko gaituela.

Oraindik ezin esan auzoan ze eragin izango duen. Baina auzoan, bertan edo gertu, laguntzeko prest dagoen jendea beharko da. Batez ere txoznetan egongo da jende beharra. Beraz, parte hartu nahi baduzu zure laguntza eskaintzen eta oraindik ez bazara inorekin harremanetan jarri, Moises de Andres eta Ines Etxeberriarengana jo dezakezu. Besterik gabe, beste bat arte!



KALEBERRI

ANE URDANGARIN

Antolakuntza aurrera!

Elkarlanean hasiak gara dagoeneko, urrian erreleboa Oriok eman zigunetik etengabe lanean jardun dugu. Talde mordoak bakoitza bere eginkizun eta zereginetan, norberari dagokiona ahal den modu hobereanean eramaten. Zenbat eta zenbat gauza antolatu behar izaten diren honelako festa erraldoia martxan jarri ahal izateko, eskerrak esperientzia dugun horretan, beti dugu zerbait ospatzeko eta.

Oraingo honetan, txoko honetaz baliatuz informatu nahiko nizuke tonbola egiteko asmoarekin gabiltzala, eta ez behin, hirutan baizik. Hasiak gara duela hilabete batzuk, hainbat enpresa eta dendetara tonbolan zozketatuko diren materiala eskatzen eta erantzun oso positiboa jasotzen gainera.

Halere norbaitek zerbait interesgarria balu zozketaren barruan sartzeko, esku zabalik hartuko genuke edozer. Horretarako gurekin harremanetan jarri zaitezke usurbil@ikastola.net edo 943361216 telefonora deituz. Eutsi goiari!!! Ondo izan denoi. Hurrengora arte.



AGINAGA

MARIA ANGELES ARRUTI

Urte amaiera

Zorionak urte berria hasteko aukera izan dugunoi, denek ez baitute izan. Urte berriko aurreneko eguna oso polita izan zen leihotik edo kanpotik ikusteko. Dena txuri-txuri, hor azpian duzue goizeko 9:00etan ateratako argazkia eta aldamenen beste bat.



Duela 30 urte, 1985eko urtarrilaren 13,14 eta 15ean egin zuen elurtearen ingurukoak. Zer nolako burruntzia!

Horrelakoak ez dugu maiz ikusteko aukera izan. Ondo izan eta laster arte!



Edurne Sueskun, ETB1eko "Gutar" berrietako bat

Agunekin egotea atsegin du, bere esanetan, motorzale eta futbol zalea da, naturala. Esperientzia berri bat bizitzeko gogoz dago, 21 urteko usurbildarra. Edurne Sueskun Dominguez izena du. Aurrerantzean, Euskal Telebistako "Gu Ta Gutarrak" saioan ikusi ahalko dugu. Programak eguberri ostean abiatu zuen bigarren denboraldiko lehiakide berrietako bat da. Esperientzia polita izaten ari dela dio Edurnek, espero zuena baino hobea, bere beldurrak gaintzeko balio izaten ari zaiola.

Apustu bat tarteko zaude saioan?

Edurne Sueskun Dominguez: Casting-a egin nuen, klaseko batek esan zidalako ez nintzela ausartuko aurkeztera. Aurkeztu nintzen, ez zidatela hartuko pentsatuz. Kamera aurrean oso lotsatuta egon nintzen. Lasai nengoen, banekielako ez zigutela hartuko. Baina deitu zidatenean, beldurtu nintzen. Gero programan hasi eta gustura.

Aurkezpen bideoan, saioaren jarraitzaile sutsua zarela diozu. Zerk erakarri zintuen saioa ikustera?

Lehenengo saioa ikusi eta ez zitzaidan gustatu. Klasean denak saioari buruz hitz egiten hasi ziren. Zertaz hitz egiten zuten ez zekien bakarria nintzen. Une onenatarikoan hasi nintzen ikusten. Ordutik egunero ikusi izan dut. Saioan zehar, denetarik sortzen da; laguntasuna, maitasuna kalean gertatzen den moduan, ika-mikak... Azken finean, errealitatea bezalakoa da.

Elkarbizitza saio bat da. Morgako aterpetxean zer moduz moldatzen zara taldekoekin?

Bi astebururik behin, ostiraletik igandera elkarrekin bizi gara Morgako aterpetxean. Oso gustura nabil. Udan gainera, aisialdiko begirale izateko ikastaro bat egiten aritu nintzen. Hor ere, nahiz kamerak ez egon, 13 pertsona ginen elkarbizitzen 13 egunez. Gustatu zitzaidan. Hau antzeko esperientzia izaten ari da.

Eroso sentitzen zara kameren aurrean?

Hasieran kosta egiten zitzaidan. Neure gauzetaz hitz egitea asko kostatzen zait. Lehen asteburuan, urduritasunagatik ez nuen jan ere



"Saioan zehar, denetarik sortzen da. Azken finean, errealitatea bezalakoa da".

"Programa ez dut utzi nahi, esperientzia polit bat izaten ari baita. Halere, neuretzat ikasketek dute lehentasuna"

egiten. Gainera begiak estalita joan ginen Donostiatik Morgaraino furgonetan. Ezin genuen hitz egin. Hara iritsi ginen, denoi sakabanatu ziguten, batzuk binaka, besteoi bakarrik. Begietako estalkia kendu nuenean, aurrean hiruzpalau kamera, erredaktore piloa eta mikrofonoak nituen. Beste aldera begiratu eta ardiak. Kamerekin izan nuen lehen kontaktua izan zen. Orain nahiko ohituta nago. Gehiago balio dit niri bizitzen ari naizen esperientziak, telebistan ateratzen dena baino.

Morgan asteburua, astero Miramonen, Zubietan administrari ikasketekin... Nola dararamazu guztia?

Dena aldatu da. Neure bizimoduak errutina izateari utzi dio. Baina noizean behin halakoak egitea ondo dago. Bizitza aspergarria da bestela, dena errutina baldin bada. Programa ez dut utzi nahi, esperientzia polit bat izaten ari baita eta gauza onak ari zait ematen. Halere neuretzat ikasketek dute lehentasuna.

"Burua erabiltzeko esan digute"

Koadrila jator batek zer ezaugarri bete behar ditu?

Koadrila jator batek ondo eraman behar du. Gustukoa izan edo ez, egia aurrez aurre esan.

"Soltera de oro" ezizenarekin aurkeztu zara saiora. Baina azken saioen ostean, ez dakit ezizena mantentzeko moduan izango zaren.

Txurru (taldeko kapitaina) eta biok oso harreman ona izan dugu. Baina ez da ezer pasa. Oso ondo eramaten gara, eta horixe bakarrik gara, lagunak. Berak kanpoan, aurreko edizioko norbait du.

Zer ari zarete entzuten kalean?

Kaletik entzuten duzu jendea hitz egiten, baina ez zait pasa neuregana jendea etortzea. Nabaritu dut lehen edizioko kideekin parrandan egon eta pauso bat eman orduko, mundu osoa argazkiak eskatzen ikustea. Niri ez zait pasa oraingo.

Saioa arrakasta izaten ari den seinalea?

Bai. Burua erabiltzeko esan digute, dirudiena baino jende gehiagok ikusten duela saioa.

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA



EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182



OGI BERRI

ARTISAU OKINAK

egunero 06:00tik 21:00ra

(asteburutan ere)

PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

Patatak errioxar erara, oilaskoa eta profiterolak, Inauteri afariko menuan



Afarirako txartelak otsailaren 11ra arte egongo dira salgai. Beraz, alde z aurretik erostea komeni.

Ipuinzaleen mozorro festarako afaritarako txartelak asteburu honetatik aurrera salgai, otsailaren 11ra arte, NOAUA!ko egoitzan, Irratin eta Bordatxon. Prezioa; 14 euro. Menua:

- Patatak errioxar erara.
- Oilaskoa eutxourrei saltsan.
- Profiterolak.

Otsailak 14, larunbata

12:00 Erraldioen kalejira dultzaineroekin.
16:00 Karaoke festa Gaztelekuan.
18:00 Burrunbazale txarangarekin kalejira.
21:30 Afaria Usurbilgo Gaztetxean. Txartelak aurrez salgai 14 eurotan, NOAUA!ko egoitzan, Irratin eta Bordatxon.

Martxoaren 22an 13:30ean, Korrika!

19. Korrikako antolakuntzak argitara eman du martxoaren 19tik 29ra euskararen aldeko martxak herriz herri osatuko duen ibilbidea. Gogoan izan, martxoaren 22an helduko dela Aginaga, Usurbil eta Zubietara. Goizean Donostiatik igaro eta Lasartera helduko da 12:31n. Hipodromo aldera doan zubian hartuko dugu lekukoa eguerdiko 13:30etan. Eta handik, hauxe 19. Korrikak inguruotan osatuko duen ibilbidea:

Zubieta

Zubieta alderik alde zeharkatuko du Santueneko zubiraino.

Usurbil

Santueneko zubitik Atallu industriagunera. Bizkarretik Kalezarretera. Kalezarretik, Bordatxo aurreko errotondara. Eta handik behera, Zubiaurrenea kaletik Kale Nagusira. Kale Nagusitik San Inazioko



Iaz Aginagatik iritsi zen. Aurten, Zubieta-Usurbil-Aginaga norabidean egin beharko da lasterka.

errotondora. N-634 errepidean sartuko da gero, 19. Korrika, Aginaga alderantz.

Aginaga

Aginagan: N-634 errepidetik Mapil pare-raino jarraituko du 19. Korrikak. Errepidetik atera gabe. Mapilen, 14:35ean oriotarrek hartuko dute lekukoa.

Informazio gehiago: korrika.eus

Formazio saioak gurasoentzat

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak "Seme-alabak aniztasunean hezten" izeneko guraso tailer bana antolatu dute Zubietako Kaxkapen eta Potxoenean:

Urtarrilak 28-otsailak 4, Kaxkapen

17:00-19:00 "Seme alabak aniztasunean hezten" guraso tailerra, Zubietako Kaxkapen.

Bideratzailea: Clara Wolfram, Udal Hezkidetza Programaren arduraduna.
Antolatzaileak: Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Saila eta Zubietako Eskola Txikiko zuzendaritza eta guraso elkarte.

Otsailak 3-17, Potxoenean

17:00-19:00 "Seme-alabak aniztasunean hezten" guraso tailerra, Potxoenean.

Bideratzailea: Clara Wolfram, Udal Hezkidetza Programaren arduraduna.
Lanketarako gaiak: generoaren eragina txikitatik, jarrera sexistak nerabeen artean, nesken aniztasuna eta ahalduntzea susta-tzea, eta mutilen aniztasuna eta maskulinitate eredu berriak sustatzea.

Izen ematea: doan, urtarrilaren 26tik 29ra. 943 377 110 edo parekidetasuna@usurbil.eus

Antolatzaileak: Usurbilgo Udala, Hitz Aho.

Garagardo tailerra, otsailaren 7an gaztetxean

Otsailaren 7an, 11:00-16:00 artean Ugarte baserrian, Usurbilgo Gaztetxeak antolatuta. Garagardoa etxean nola egin ikasi ahal izango da saioan zehar. "Tartean, etxeko pizzak jateko aukera egongo da", antolatzaileen esanetan.

Izen-ematea: otsailaren 4a arte

Izen emateko, idatzi eskaera helbide honetara, otsailaren 4a baino lehen: usurbilgogaztetxea@gmail.com

Antolatzailea: Usurbilgo gaztetxea.

Lehendakaria, Usurbilen

ELHUYAR FUNDAZIOA BISITATZERA ETORRI ZEN IÑIGO URKULLU LEHENDAKARIA

Ezohiko mugimendua ur-tarrilaren 23an, Osinalde industriagunean. Iñigo Urkullu lehendakariak Elhuyar Fundazioa bisitatu zuen, Cristina Uriarte Hezkuntza Sailburuarekin batera. Ez da ahaztu behar Elhuyar Fundazioaren Patronatuko kide direla, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila.

Fundazioaren egoitza ezagutzeko aukera izan zuten, Elhuyarrekoek antolatu zieten bisita gidatuan. Fundazioan egin duten berrantolaketa lana eta aurrera begira dituzten erronken berri jaso zuen Lehendakariak. Aurrez eta adierazpenen tartean, 1972az gerostik egindako lanagatik zoriondu eta eskerrak helarazi nahi izan zizkien Urkulluk Elhuyarreko kideei. “Zientzia eta euskara uztartzeko asmoz jaio zineten eta zuen ibilbidea oparo eta aberasgarria izan da, gure herriaren garapenerako”, zioen.

Eta hala izaten segitzea ezinbestekotzat jo zuen. “Elhuyarren lankidetzak ezinbestekoa da, Euskadi, zientzia, teknologia eta berrikuntzan aitzinda-



Cristina Uriarte Hezkuntza Sailburuarekin batera, Elhuyarren egoitzan izan zen aurreko ostiralean.

Iñigo Urkullu

“Zientzia eta euskara uztartzeko asmoz jaio zineten eta zuen ibilbidea oparo eta aberasgarria izan da, gure herriaren garapenerako”

ri izateko”, Lehendakariaren esanetan. Elhuyar eremu-tako sare kide garrantzitsu eta aktiboa dela aitortu zuen. Aurrera begira, elkarlanerako

prestutasuna adierazi zuen, herri honen garapena ziurtatzeko berrikuntzan inbertitzea ezinbestekoa dela baitio. Diru partida garrantzitsua bideratu dute alor honetara.

Zientzia plana gauzatzera

Eusko Jaurlaritzak duela hilabete onarturiko Euskadi 2020 zientzia plana mugarri berezitatat jo zuen baita, Urkulluk. Plana onartu eta garatzen Elhuyarrek eginiko ekarpena eskertu nahi izan zuen. Eta plana onartuta, gauzatzeko beharra azpimarratu. “Plana

denon artean onartu dugu, baina jakitun naiz, plana papera dela denon artean ez badugu gauzatzen eta garatzen”, zioen Urkulluk.

Lehendakaritzara heldu zenetik, aurreko ostiralekoa Usurbila zetorren lehen aldian zuen Iñigo Urkulluk. Urte mordoxka bat atzera egin behar dugu, lehendakari batek herri hau bisitatu zuen azken aldiak oroitzeko. Juan Jose Ibarretxe lehendakari zen garairaino. Hark ere, bere garaian, Elhuyar Fundazioa bisitatu zuen.

“Euskal Herritik kanpo dugun kokapena hobetu nahi dugu”

Zientzia eta euskara uztartzeko asmoz sortu zuten Elhuyar 1972an. Kultur-elkarte gisa lehen urratsak egin ostean, fundazio bihurtu zuten 2002an. Euskal komunitate aktibo eta kritikoa helburu izanik, “euskara zientzian, teknologian eta gizartean sendotzen eta harentzako arlo berriak erakitzen egin dugu lan”. Orain, “40 urteko ibilbidea eginda, 2013an, eguneratu egin

du xedea, egokitu egin ditu, negozio-unitateak, eta irudi korporatiboa, berriz, aldatu”. Unitateotan dihardute lanean; Zientzia, Hizkuntza eta Teknologia, Aholkularitza eta Komunikazioan. Dauden arloetan sendotu eta “indarrez datozen arlo berriak irabazi” nahi dituzte, “euskal gizartearen erreferentziatzeko gune bihurtu, eta Euskal Herritik kanpo dugun kokapena hobetu”.



Iñigo Urkullu, Elhuyar Fundazioako kideen azalpenak adi entzuten.

Gattunk denda: “Aurreikuspeno



“Herriko jendea bakarrik ez, badira kanpotik propio dendara arropa erostera etorritakoak: Mutrikutik, Zumaiaitik, Hernanitik, Tolosatik...”

Dendako atea ireki eta ixten izan dute etenik gabe. Eginak zituzten aurreikuspen onenak ere gaituta borobildu zuten eguberrietako kanpaina. Herri-kanpotik nahiz kanpotik, espresuki dendara etorritako lehen bezero “uholdea” igarota, orain lasaia dabilta. Baina atsedean hartzeko tarterik gabe lanean, datorren denboraldirako prestatzen. Hurrengo urtarorako eskaintza antolatzen. NOAUA!-ri aurreratu diotenez, udaberri koloretsua omen datorkigu martxotik aurrera. Kolore bizi eta alaietz bete. Hala dio, Kilometroak 15 ekimenaren aldeko Gattunk denda kudeatzen ari den lan taldeak. Jada, arropa kontuetan aditu ditugun herri-tarrek.

Bi hilabete bete dituen dendaren irekiera eguna nola oroitzen du-zue orain?

Gattunk denda: Eromena izan zen. Bi egun aurretik erropa

GATTUNK dendakoak

“Oso arropa polita dago, eta hori bezeroek asko aipatzen digute. Ez da betidanik ezagutu izan dugun Kilometroetako arropa”

serigrafiatik jasotzeke ginen, ez genekien ze kopuru etorriko zen, dendan nola jarriko genuen gutxiago. Eta hori bakarrik ez, bezperan Kilometroak ekimenaren aurkezpena genuen eta ikuskizun hartarako erropa behar zen. Goizeko 3:30etan bukatu genuen denda atontzen. Irekiera egunean, bospasei pertsona aritu ginen arropa saltzen, etenik gabe. Oso harrera ona izan zuen, Erle Egunarekin tokatu zen eta oso gustura aritu ginen.

Denda inauguratu berrian, nola hartu zuten herritarrek?

Jendeak jada bezperako Kiroldegiko aurkezpen ikuskizunetik arropa fitxatua zuela etorri zen. Usurbildar asko etorri da, 8-12 urte arteko neskak bereziki. Jertse zehatz baten bila etorri dira. Herriko jendea bakarrik ez, badira kanpotik propio dendara arropa erostera etorritakoak ere; Mutrikutik, Zumaiaitik, Hernanitik, Lasartetik, Tolosatik... Edota Oriotik dezente, Kilometroak ospatu berria dutenez, oso mentalizatuak daude. Gero badira, urtero, Kilometroaren aldeko dendetan, gabonetarako gastua egiten dutenak. Non den Kilometroak, hara joaten dira erosketak egitera. Oso arropa polita dago, eta hori bezeroek asko aipatzen digute. Ez da betidanik ezagutu izan dugun Kilometroetako arropa.

Lokalari buruz, zer diote bezeroek?

Harritura geratu dira. Argitasua da, erakusleho ederra

du, eta horrek salmentan asko laguntzen du. Lanparak eman dion ukitua, alfronbra handiak goxotasuna ematen dio, denda erdiko egurrezko mahaia... Badira asko gustatu diren detailak. Lan handia egin da. Orduak sartu dituzte, margolari, igeltsero, argiketariak... Jende askok parte hartu du eta guretzat lagungarria izan da.

Zerk gehiago lagundu du hainbeste jende erakartzen?

Eta arropa bera. Erakuslehoan jantzi horiek jarrita ikusteak. Erakuslehoia ere sarritan aldatu da eta horrek ere asko esan nahi du. Jendeak pasaeran beti erakuslehoia begiratzen du. Gai honetan, asko lagundu digu ikastolako ama batek, Yolanda Riverak; dendan gauzak nola jarri, erakuslehoia txukuntzen, arropa kanpora saltzera ateratzen direnean mahaia eta arropa nola jarri... Hor ere laguntza handia izan dugu.

ak askogatik gainditu dira”

“Dendak harremanetan jartzeko balio izan digu”

Langileen artean ondo antolatu zarete?

Gattunk denda: Gutxi gora behera denok elkar ezagutzen ginen. Dendakoak harremanetan jartzeko balio izan digu. Horren lekuko, afari bat egin genuen aurreko astean. Whatsapp-ean ere taldea sortu dugu. Bide batez, galdetu izan digutenez, azpimarratu nahi dugu boluntarioak garela. Ez dugu soldatarik. Muxutruk ari gara lanean. Bestalde, guretzat oso garrantzitsua zen baita arropa ezagutzea. Dendan zaude eta jakin nahi duzu ze eskaini behar diozun datorrenar, ze aukera dugun. Guk ere ikasi behar izan genuen hasieran, zer eskaini jakiteko. Orain adituak egin gara.

Nola osatu dituzue lan txandak?

Guztira 16 lagun gara eta 2 arduradun. 2 pertsonako 8 talde osatu ditugu. 4 talde goizez aritzen dira lanean, eta beste 4 arratsaldez. Talde bakoitzak hilean astebetean lan egin behar du goizez edo arratsaldez. Hori teorian. Abendua salbuespena izan da, taldeak indartu behar izan genituen eta ordu gehiago



“Guztira hamasei lagun gara eta bi arduradun. Bi pertsonako zortzi talde osatu ditugu”.

GATTUNK dendakoak

“Galdetu izan digutenez, azpimarratu nahi dugu boluntarioak garela. Ez dugu soldatarik. Muxutruk ari gara lanean”

sartu dira. Une puntuala izan zen hori. Gabonak pasata, orain bi langilerekin oso lasai gabil-

tza. Lasaiago lan egin, eta denda txukuntzeko denbora gehiago izaten dugu. Beste herrietako esperientziak ezagututa, martxotik aurrera, salmentak berriz igoko direla espero dugu. Iraila aldera, Kilometroak gerturatu ahala baita. Beste herrietako emaitzak eta joerak errepikatzen ari gara.

Denda ibiltaria ere hor da, herriz herri arropa saltzera doazenak. Nola antolatu zarete eurekin?

14 irteera izan dira abenduan. Arropa asko izatea ekarri du horrek. Biltegia badugu baina ikastolan. Bueltaka ibili behar. Egun batzuetan, 3-4 aldiz gauza baten bila. Dendan ezin da nahi adina arropa izan, arropa hori irteeratarako ere utzi behar dugu eta. Dendara ekartzen badugu, biltegian ez dago. Oreka nola lortu? Ahal den kopuru juxtuena ekarri behar izan dugu. Arazoa hor zegoen, baina moldatu gara.

“Oso udaberri koloretsua izango dela aurreratu dezakegu”

Gabonetako kanpaina oparitarako baliatuko zuten askok. Zer mugimendu egon da dendan?

Abenduan, gure aurreikuspenak askogatik gainditu dira. Askok saldu da. Dendan lau boluntario egotea aurreikusten genuen, eta azkenean sei egon dira goiz eta arratsalde, lanean. Gabonetako oporraldian, jendea dendara sar-

tu eta atera ibili zen, etenik gabe. Dendan ez ginen inoiz bakarrik geratzen. Denborarik ez genuen, ezta txukuntze lanetarako ere.

Oraintxe bertan dendara hurbiltzen denak, zer aurkituko du?

Irekiera egunean zeuden produktu berak ditugu, denetarik, baina neurri batzuk mugatuta,

jada udaberriko arropa eskatzen ari gara eta. Horregatik, orain arteko arropa gehiegi ere ezin dugu ekarri. Martxorako arropa berriarekin hasi nahi dugu lanean. Martxotik aurrera, udaberriko kanpaina.

Udaberriko kanpainak zer ekarriko du?

Oso kolore biziak eta alaiak

izango dira. Gainera, saiaturako gara egon diren hutsune batzuk betetzen.

Joan ez denari, gonbidatu Gattunk dendara...

Etorri dadila, oso leku polita da. Martxoko lehen astean, produktu berriak. Datorrena, oso udaberri koloretsua izango dela aurreratu dezakegu.

“Hauxe duzue sagardo berria!”

Sagardo bete edalontziak eskutan eta bertaratu zirenei begira, Realeko jokalaria Markel Bergarak eta Geronimo Rullik “Hauxe duzue Usurbilgo Saizar sagardo berria!” ahoskatzearekin batera abiatu zuten txotx garaia. Urtarrilaren 22an izan zen, eta ekitaldiak ikusmin handia piztu zuen.

Julian Iantzi telebistako aurkezle ezagunak gidaturiko ekitaldian Realeko jokalaria gehiago ere batu ziren. Markel Bergara eta Geronimo Rulliren taldekide Imanol Agirretxe ere bertan izan zen, sagardo berria dastatzen. Gogoan izango duzue, iaz Saizarreko sagardo denboraldia ireki zuena usurbildar futbolaria izan zen.

Jende ezagun gehiago ere



Imanol Agirretxe, Julian Iantzi, Geronimo Rulli, Markel Bergara eta Napo Lertxundi, aurreko osteguneko irekiera ekitaldian. Argazkiak eta bideoak: noaua.com.

hurbildu zen Saizar sagardotegiko ekitaldira; David de Jorge sukaldaria edota Inaxio Perurena harri-jasotzailea, esaterako. Eta herriko ordezkari zabala ere bai, noaua.com web orrian ipini genuen bideoan ikusiko

duzuenez. Denek “desfilatu” nahi izan dute kupeletatik, lehen sagardo tragoa dastatzera. Triticilariak, herriko dantzari eta txistulariek girotu zuten irekiera ekitaldia eta sagardotegiko afaria.

Txotx garaia

Aginaga sagardotegia

■ 943 36 67 10

943 37 06 68.

Aialde-Berri sagardotegia

■ 943 365 031.

Araeta sagardotegia

■ 943 362 049.

Arratzain sagardotegia

■ 943 366 663.

Iruin sagardotegia

■ 943 361 229.

Saizar sagardotegia

■ 943 37 39 95.

Urdaira sagardotegia

■ 943 372 691.

Tapak eta aurkibideak prest

Agur esan diogu 2014 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2014ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditzaitezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

2014



557-598 zenbakiak

Otsailaren 6an, bertso-afaria



Jon Maia eta Uxue Alberdi bertsolariak hurbilduko dira otsailaren 6an ostirala Saizar sagardotegian egingo den ospakizunera.

Urrriaren 4a baino lehen, Gattunk sentitzeko aukera ugari izango dira. Datorren astean, urruti joan gabe. Bertso-afari baten bueltan, une atsegin bat igarotzeko aukera izango dugu, eta puntako bertsolariren ondoan.

“Otsailaren 6an bertso afari mundiala antolatu dugu Saizar sagardotegian. Bertsolariak

Uxue Alberdi eta Jon Maia izango dira”. Ohar hori igorri ziguten #Kilometroak15 lan taldeko kideek. Txotx garaia bete-betean den honetan, bertsoen doinuekin eta sagardo berriarekin une gogoangarri bat igarotzeko aukera dugu. Hori dena gutxi balitz, trikitalariek girotuko dute bertso-afaria.

Astebete falta da baina sarrerak aldeztu aurretik erostea

komoni. Dagoeneko salgai dira Ikastolako idazkaritzan, Txirristan eta Gattunk dendan.

■ Otsailak 6 ostirala, 20:30ean Saizar Sagardotegian.

■ Bertsolariak: Uxue Alberdi, Jon Maia.

■ Sarrera: 26 euro. Ikasle eta langabetuak: 20 euro.

■ Ikastolako idazkaritzan, Gattunk dendan eta Txirristan daude sarrerak salgai.

Gau eder eta alaia

Otsailaren 6an hitzordu ederra ona dugu aitzakia.

Gure artean izango dira Uxue eta Jon Maia.

GATTUNKen alde izango dugu gure bertso-afaria.

Pasa ezazu gure artean gau eder eta alaia.

Doinua: Pello Joxepe

Balkoiak banderolez janzteko deia

Arropaz gain, Zumetaren serigrafiak, atekiak, mantalak, boligrafoak, motxilak, txapak... aurki ditzakezue Gattunk dendan. Produktu sorta bat merkealdian dute, %20 merkeago eskaintzen ari dira. Eta #Kilometroak15 ekimenaren aldeko banderolak salgai daude Gattunk dendan.

Banderolak 5 eurotan eskuratu ditzakezue eta banderola hauekin etxeetako balkoiak apaintzera animatzen gaituzte, “herria girotzeko”.

Ordutegia: Astelehenetik larunbatera, 10:30-13:00 // 17:00-20:00 (astelehen goizak eta larunbat arratsaldeak itxita).

Oharra: ordutegian edozein

aldaketa balego, dendako atean bertan jakinaraziko dute.

Informazio gehiago:

■ kilometroak. eus

■ Facebook: Kilometroak 2015 Usurbil

■ twitter: @kmk15usurbil

■ instagram: @kmk15usurbil

■ Flickr: www.flickr.com/photos/kmk15usurbil/



Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Otar-Goxo

Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

350 mendi bizikleta zale, “Hotzak Akabatzen”



Giro ederrean burutu zen Irisasi BTT lasterketa. Argazki ugari atera genituen eta NOAUAko argazkitegian aurkituko dituzue (baita QR kodearen bidez ere).



Irteerako bideo bat topatuko duzue noaia.com web orrian. QR kodearen bidez, eskuko mobilean ere ikus dezakezue bideoa.

Ehunetik gora lagun zeuden izena emanda aurrez kirolprobak.com atarian. Parte hartzaile kopurua ordea, bikoiztu eta gehiago egin zen proba egunean. Arrakatsua, urtarrilaren 25ean Irisasi BTT

“Hotzak Akabatzen” 2015 ekimena. 350 lagunek osatu zuten bizikleta gainean Andatzako buelta. Goiz hotzak eta bideko lokatzak baldintzatu zuten bosgarren edizio hau. Irteeran eta helmugan egon

ginen, probaren hasiera eta amaieran, tantaka heltzen zihoazen herritar kirolariak iruditan jasotzen. Hemen argazki batzuk. Irudi gehiago, noaia.com atariko Argazkitegian eta NOAUA!TB atalean.

Gipuzkoako txapelkun eta Euskal Ligako igoera bidean

Aurreko asteetan iragarria zuten Usurbil Kirol Elkartetik, lau talde zituztela Gipuzkoako Txapelketako sailkapeneko lehen bi postuetan. Jubenil neskek, matematikoki Gipuzkoako txapelkun izendatu zituzten duela bi asteberu. “Hurrengo bi asteetan erabakiko da maila bakoitzeko titulua”, zioten. Bi asteok igaro dira. Eta emaitza bikainekin borobildu dute lau taldeek herrialde mailako txapelketa. Lautik hiru, Gipuzkoako txapelkun ditugu; jubenil neskek, jubenil mutilak eta kadete neskek. Kadete mutilak txapelkunorde. Zorionak!

Euskal Ligako igoera asteburuan

Gipuzkoako Txapelketako lehen bi postuetan sailkatuta, lau taldeok Euskal Ligarako igoera jokatu dute asteburu honetan, urtarrilaren 30etik otsailaren 1era. “Euskal Ligarako igoera sektoreak jokatuko dituzte. Talde bakoitzak beste hiruna aurkari izango ditu. Sektore bakoitzeko lehen biak, Euskal Ligara igoko dira eta Espainiako Txapelketa jokatzeke aukera



Jubenil neskek, jubenil mutilak eta kadete neskek txapelkun, eta kadete mutilak txapelkunorde.

izango dute bertan”, Usurbil Kirol Elkartetik aditzera eman dutenez. Sektoreok non ospatuko diren eta ze ordutan, egunotan zehaztuko da.

Granollers Cup

Azken urteotan bezala, 2015ean ere aipatu txapelketan parte hartzeko asmoa du Usurbil Kirol Elkartek. Txapelketara joateko nondik norakoan berri emango dute eskubaloit taldeen bilguneetik, otsailaren 8rako 11:30etan Sutegin deitu duten bileran. Ekitaldia, jokalaria, entrenatzaile eta gurasoei zuzendua egongo da.

Judo taldeko kideek emaitza onak lortu dituzte azkenaldian

Espainiako Kopa “A” (Burgos, urtarrilak 4)

Mafer Carazas (-48 kg): urrea.
Lorea Etxabe (-63 kg): bosgarren postua.
Julen Alzas (-55 kg).
Mikel Sanz (-90 kg): zilarra.

Espainiako Super Kopa (Tortosa, urtarrilak 16-17)

Paula Vicente (-48 kg): brontzea.
Itsasne Arruabarrena (-52 kg).
Xabier Cazorla (-73 kg): urrea.

Afrikako Open Txapelketa (Tunez, urtarrilak 16-18)

Mundu mailako urteko lehen proba puntuagarria. Aiora Arrillagak (-48kg) parte hartu zuen. Argeliako ordezkariaren aurkako borrokaldia galdu zuen ordea.

Otsailaren 8an, Usurbildik Zarautzera oinez

Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak 2015erako proposaturiko lehen txangoa duzue otsailaren 8koa. Aipatu moduan, Usurbil eta Zarautz lotuko dituen 17 kilometroko ibilbidea osatuko dute mendizaleek. "Usurbildik abiatuko gara, Loatzu eta Pagoederragatik Oriora bideratu eta Txurrukatik Zarautzera iristeko. Ondoren tren hartu eta Usurbila itzuliko gara", antolatzaileek berri eman dute. Ibilbidean zehar, geldialdia egingo dute Zarauzko kanpinaren alboan kokatua dagoen Talai Berri txakolindegian. Txakolina nola ekoizten duten ezagutu eta bertako produktuak dastatzeko aukera izango dute.

Irteerara joateko gogoan izan, derrigorrezkoa izango dela aurrerantzean, federatua egotea eta mendiko aseguru txartela izatea. Zarauzko irteerarako bestalde, 10 euroko ordainketa egin beharko da, otsailaren 4a baino lehen, Andatzakoek dituzten bi kontu zenbakiotako batean:

RURAL KUTXA: 3008 0259 1630 0543 0321

KUTXABANK: 2095 5069 0710 6848 9805

Federatu txartela

Aurrerantzean, Andatza Mendizaleen Ki-



17 kilometroko ibilbidea osatuko dute.

rol Taldeko irteeretan parte hartzeko ezinbestekoa izango da aseguraturia egotea. Federatu txartelik gabe zaudetenok, adi ohar hauei. Tramitazio orria andatzamendizale.info web orrialdean eskura dezakezue, "Federatzeko 2015" atalean. Datu pertsonalak bete eta ordainketa egin, orrian bertan agertzen den kontu zenbakian. Izen emate orria modu honetan helarazi dezakezue Andatzakoengana:

-Ostegunetan 19:00-19:30 artean, Andatza M.K.T.ren udaletxe ondoko lokalean (DYAren egoitza ohian). Kontzejuzarra 3. Edo bertan dagoen postontzian utzi.

-E-posta: andatza@hotmail.com

-Web orria: andatzamendizale.info

("Federatzeko 2015" atalean)

Mendi Federazioko orrian: gmf-fgm.org

2015eko irteeren egutegia osatu du Andatza taldeak

- Otsailak 8: Usurbil-Zarautz.
- Martxoak 8: Gorriti-Tolosa.
- Apirilak 12: Eskoriatza.
- Maiatzak 10: Herri Urrats. Egun bat edo biko irteera: Egun batekoa bada: Lizuniaga-Senpere. Bi egunetakoa bada: Ereñozu-Lesaka, Lesaka-Senpere.
- Ekainak 14: Lokiz mendizerra.
- Uztailak 11-12: 2 eguneko irteera, Hiru Erregeen Mahaira: Lescun-Linza, Linza-Izaba.
- Irailak 13: Besabi-Goizueta.

- Urriak 18: Irurzun-Madoz-Goldaraz.
- Azaroak 8: zehazteke oraindik.
- Azaroak 25-28: Mendi Astea.

- Egutegia behin behinekoa da.
 - Irteerak burutuko direla egiaztu egin behar da antolatzaileekin.
 - Iragarritako txangoak aldatu edo bertan behera utzi ditzake Mendi Taldeak.
 - Andatza M.K.T.-k antolatzen dituen irteeretan parte hartzeko, mendiko federatua izatea derrigorrezkoa izango da. andatzamendizale.info

Eskubaloitako partidak

Urtarrilak 31, larunbata

10:00 Alebin mutilak:

Udarregi 5A-Langile A

10:00 Alebin mutilak:

Udarregi 5C-Udarregi 5B

11:00 Alebin mutilak:

Udarregi 6B-Udarregi 6C

12:00 Infantil neska:

Udarregi B Usurbil-Ereintza C

16:00 Senior mutilak, 1. Territoriala:

Usurbil K.E.-Leizaran Ernio Inmobiliaria

17:30 Senior neska:

Usurbil K.E.-Aiala Zarautz B

19:30 Senior mutilak, 1. Nazionala:

Ucin Aluminio Usurbil-Somos Eibar

Otsailak 1, igandea

11:30 Alebin neska (7):

Usurbil K.E.-Bera Bera

Oharra: neurketen ordutegietan aldaketak egon daitezke.

Futbola Haranen

Urtarrilak 31, larunbata

11:30 Infantil mutilak:

Usurbil F.T.-Ekintza K.E.

16:00 Ohorezko Maila:

Usurbil F.T.-Bergara K.E.

18:15 Jubenil mutilak:

Usurbil F.T.-Trintxerpe C.D.

Otsailak 1, igandea

09:00-13:00 Futbol Eskola:

Usurbil F.T.-Sporting de Herrera

16:00 Kadete mutilak:

Usurbil F.T.-Internacional C.D. "B"

Usurbil FT-ko zozketak

Lau zenbaki saritu zituzten Gabonetan, baina momentuz saritu bakararra agertu omen da. Beste hiru sari banatzeko ditu oraindik, 1. saria: 3.437.2. saria: 2.845. 3. saria: 7.637. 4. saria: 7.617. "Saritua izanez gero, hurbildu asteburuan Haraneko tabernara".

TAXI
24 h
ORAIN 8 PLAZA!
677 37 34 66] Joxe
943 36 21 78] Etxabe

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

Zuri arrain
iturgintza
TEL: 678 45 31 48 • ZUBIETA
zuriarrainiturgintza@gmail.com

Pinturas Ion
KANPOALDEKO FATXADAK ETA
BARNEALDEAK (PISUAK, LOKALAK...)
ENPRESETAKO MANTENIMENDUAK
690 99 05 58
ionf81@hotmail.com

Agenda urtarrila

30 ostirala

- **Gure Pakea Elkartekoen ohiko batzar nagusia** 16:30ean Artzabalen.
- **Elkarretaratzea, euskal preso eta senideen eskubideen alde.** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

31 larunbata

- **Kantu-jira.** 19:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuta.

01 igandea

- **Tipi-Tapa: masail pintxoak.** Aitzaga, Artzabal, Bordatxo, Txapeldun, Txiriboga, Txirristra eta Xarma tabernetan.
- **Haurrentzako zinea: "Freddy Igeldegi".** 17:00etan Sutegin.

Igande honetan, haurrentzat film proiektzioa Sutegin



"Freddy Igeldegi" izeneko pelikula eskainiko dute, arratsaldeko 17:00etan hasita.

Gaztetxoentzat, ez da erraza helduekin bizitzea. Film honetako 10 urteko Victor eta bere lagunentzat, adibidez. "Euren mundua heldu serioz josita dago eta gainera Freddy Igeldegi herriko harroputzari aurre egin behar diote. Egun batean zirkua herrira iristen da eta zuzendariak Kanoi Erregeak bere azken

emanaldia eskainiko duela iragartzen du, eta herritar guztiak lehiaketa batean 'talentu berezia' erakustera gonbidatzen ditu".

- Otsailak 1 igandea, 17:00etan Sutegin.
- Sarrera: 3 euro, egunean bertan.
- Iraupena: 84 min.
- Zuzendariak: Peter Dood.

Larunbat honetan, kantu-jira

Larunbat honetan, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Mikel Laboa plazan. Usurbilgo Kantu Taldeak ohartarazi ohi dutenez, "herritar orok parte har dezake. Har ezazue liburuxka eta zatozte elkarrekin kantatzera".

Azken ostiraleko elkarretaratzea

Euskal presoan eta senideen eskubideak errespetatuak izan daitezken eskatzeko Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituriko mobilizazioa, ostiral honetan, urtarrilaren 30ean, iluntzeko 20:00etatik aurrera Mikel Laboa plazan.

Datozenak

KzGunea, otsailean arratsalde zabalik

Otsailean KzGunea arratsaldetan zabalik, 16:00etatik 20:00etara. Ikastaro eskaintza hau lotu dute datozen asteotarako:

- Otsailaren 2tik 13ra: 16:00-18:00 Oinarriko Internet ikastaroa.
- Otsailaren 16tik 20ra: 16:00-18:00 Oinarriko Internet ikastaroa-praktikak.
- Otsailaren 25etik 26ra: 16:00-18:00 Argazki-ukitua Gimp erabiliz.
- Otsailak 27: 16:00-18:00 Kizoa. Collage-ak sortu eta partekatu.

Auzolanerako deia, Zubieta Lantzenen eskutik

Zubieta Lantzen taldeak, auzolanean parte hartzeko deia, otsaileko lehen hiru larunbatetarako. "Azken hilabete luzeetan Islada Ezkutuak taldeak 1936ko gerrako aztarna ugari aurkitu ditu Zubieta mendietan: mauser fusileko bala zorroak, pistolakoak, bonba zatiak... Eta ikertzen jarraitu ahala, aurkikuntza gehiago egin daitezkeela diote. Horregatik sastrakak garbitzen ari dira larunbatetan. Beraien lanari babesa emateko, auzolaneko deialdia egitea pentsatu da".

- Egunak: otsailak 7, 14 eta 21.
- Orduetgia: 08:30.
- Tokia: Artzabaleta.
- Eraman beharrekoa: autoa eta sastraka garbitzeko tresnak.

USURBIL AUTOAK
·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SALMENTA

 **SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!**

zerbitzu ofiziala
Zumartegi industrialdea

 **943 36 10 79**

ELORZA

OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

AGINAGAKO Herri Eskola

Eskola bizirik, Agiña bizirik!



• 2-12 urte bitartekoentzat euskarazko irakaskuntza eskaintza zabala doan: ingelesa 3 urtetik aurrera, musika, internet gela guztietan, heziketa bereziko irakasle espezializatuen zerbitzua...

• Jantoki zerbitzua.

• Eskola-txikien artean koordinatutako proiektu konstruktibismoan oinarrituz.

• Eskola-txikien arteko elkarbizitza: irteerak, antzerkiak, kirola...

• Eskola orduraz kanpoko kirola.

• Goizeko gela.

Izena emateko epea:

**otsailaren 2tik
otsailaren 13ra**

9:30etik-16:30tara



Usurbilgo Udala

AGINAGA
HERRI ESKOLA
Usurbil

baikara
Gipuzkoako Ikasleen
Gurasoen Federazioa

AGINAGAKO HERRI IKASTETXEA

Erriberako Kalea 7

20170 AGINAGA

Tel. 943 372044
Faxa: 943 372044

012261aa@hezkuntza.net



Udarregi

IKASTOLA

Udarregi ikastolak zera eskeintzen dizue:

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Balore eta jarreraren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- Irakaskuntza Eleanitza: D eredua; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza Gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: Ikasturte honetan altxatako Ikastolako eraikin berriko jangelan sukaldatutako menuak (adin guztietarako) eskaintzen ditugu, herriko eta inguruko ekoizleen elikagaiak zerbitzatzuz bazkaltzarrentzat. Honela, herriko ekoizleen produktuen kontsumoa sustatzearekin batera, elikadura arduratsu eta osasuntsuaren baloreak indartzen ditugu.
- Ikasleen Goizeko Zaintza: 08:00etatik 09:00etara.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza.

47 urteko esperientzia Usurbilen.

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)

Otsailaren 2tik otsailaren 13ra (biak barne)

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6
LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12
DBH: 12 - 16



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea. USURBIL

www.udarregi.com

www.udarregi.mundua.com